Bizkaia orekan sakonduz

2022

Parte-hartzaileak

amorebieta etxano

Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea



# TRANTZISIO EKOLOGIKOA

IRAUNKORTASUNA

## Helburua:

Durangaldeko enpresetan trantsizio energetikoaren aldeko jarduerak eta proiektuak dinamizatzea.

## Azalpena:

Ekimen horren esparruan, hiru eremu nagusi lantzen dira:

- **Trantsizio ekologikoa**: Trantsizio ekologikoaren prozesuan interesa duten enpresak identifikatzen dira, horien diagnostikoak egiteko, eta trantsizio ekologikorako ibilbide-orriak zehazteko, parte hartzen duten enpresen arteko sinergiak identifikatzeko eta gai horren inguruan sentsibilizatzeko.
- **Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa**: 2030eko Hondakinen Plana aurkezteko informazio-jardunaldiak egiten dira IHOBErekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera. Jardunaldi horietan, lan-talde bat sortzen da, esparru horretan behar eta interes komunak dituzten enpresek osatua.
- **Electromovilidad-Smart mobility:** Dibulgaziozko jardunaldiak antolatzen dira, aurreko urteetan arlo honen inguruan egindako lana aurkezteko, eta parte hartzen duten enpresen eskura jartzen dira prestatutako materialak eta entregatzekoak. Halaber, eskualde arteko hausnarketa-mahai bat antolatu da, Smart-mobilityaren inguruan izan daitezkeen aukerak identifikatzeko.

**Parte hartzen duten enpresak.**
**12**

**BFAren finantziazioa**
**36.332,44 €**